

Gregorio Larrañaga Ugartemendia
Getaria, Gipuzkoa
(1950)

Aurkibidea

Biografia



Luisa Ugartemendiaren semea. Luisari elkarrizketa egitera joan, eta jakin genuen familiak zinea izan zuela Getarian. Gregoriori ere elkarrizketa egin genion, 15 minutuz, Elkano zinemaren gainean.

Zintak

GET-013

- **Proiektua:** Getaria: euskara eta itsasoa
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Data:** 2006-11-14

- **Iraupena:** 15 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Transkribatzailea(k):** Zabaleta Zuloaga, Miren

Pasarteak

1. "Elkano" zinearen sorrera eta funtzionamendua

- **Erref:** GET-013/002
- **Iraupena:** 0:03:02. **Hasi:** 00:00:30. **Bukatu:** 00:03:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Zinema

Laburpena:

Getariako zinearen inguruko azalpenak. 1950 inguruan Albusuk zinea egin zuen. Garai batean Piorekin sozio egon zen eta honek uztean eurak sartu ziren sozio. Pare bat urteren ondoren beraiek hartu zuten ardura. "Elkano" zuen izena zineak. Zarauztik bidaltzen zituzten pelikula rolloak. Hasieran herriko batzuk ibili ziren pelikulak botatzen, gero Luis eta gero euren arreba. Jendea gutxitu zenean itxi egin behar izan zuten eta etxea egin zuten bertan.

Transkripzioa

- Eta cincuantan o, bertan zinia in. Zer zan, zine haundiya zan?
- Bai! Etxe honen luzero bea, iya kamiyoa arte, ta atzian'e beste lau bat metro o, luzea.
- Jarri bertan, jarri bertan.
- Hamen ixteitzeko, amona!
- Eta ordun, Pio horrek ein zun? O...
- Albusuk, Albusuk in zian zinia ta epoka batian, ba, euki zian soziyo bezela Pio. Ta geo, handikan urte batzuetan, ba, Pion partez gu sartu giñun, ta beste urte batzuek alkarrekin in da geo...
- (Amona): Urte pare bat iñ al giñun?
- Bai, ya gu sartu giñan, guk hartu giñun zinia.
- Eta izena zun Elcano.
- Elcano. Izena ziniana Elcano. Ta garai hartan, ba, ibiltzen giñun, ba, zinia ekartzen huan, Zarauztik bialtzen zixkiyen trenian. Han [lakostan] sartu...
- Rollu haundiya.
- Rollo haundiya, holako paketiak eta geo remolke txiki batekiñ hamen goraiño ekarri behar izaten giñin.
- Ta zuk sei urte o zortzi urte izango zenitun?
- Bai. Gu orduan gaztiak.
- Eta pelikulak igotzen.
- Bai. Ta hasiera batian'e, pelikula botatzen herriko batzuek ibilli hituan, ta geo Luix'e bai. Geo hura Alemanira jun zanian, ba, gure arrebak titulua atea, ta bea ibiltzen huan, gure arreba Mertxe.
- Ordun, negoziyo guztiya zuek, ez?
- Bai, familiarra. Azkenian ya geatu huan zine familiar bat bezela. Ta geo, urtiekiñ'e, ba, ohiturak aldatu itten dittuk, eta jendia ya gutxio etortzen da bezela, jende gaztia ta Zarautza ta juten hasi zanian, ba, denboakin, in behar izan geniyan itxi...
- (Amona): Geo gu, beak, hasi neskak eta, ez al dakizu? Beak'e nahio zea, ta beno.

- Ya, momentu bat allatu huan, ba, itxi in behar izan zana, ta, toki bertan in giñin itxiak.
- Gero in zian etxiak.
- Bai. Itxiak geo. Zinia zeon lokal bertan, dana goitik behera bota ta itxiak in hituan.
- (Amona): Dan-dana botata.
- Ordun zuek bertan, zinia bertan zeonian, zuen etxia beste bat zan. Ez zan...
- Bai, beste toki batian bizi giñan, hor, beherogo. Erregieta bertan, baiña beherogo.

2. Pelikula espainiarrak ziren gehienak; elizaren zentsura

- **Erref:** GET-013/003
- **Iraupena:** 0:04:00. **Hasi:** 00:03:32. **Bukatu:** 00:07:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren indarra
- Aisia » Kultura » Zinema

Laburpena:

Hiru anai-arreba gazteenek, nahiz eta rolloak jasotzen lanean aritu, ezin izaten zituzten pelikulak ikusi "3R" (nagusientzakoak) izaten zirelako. Pelikula gehienak espainiarrak izaten ziren legeak hala agintzen zuelako. Larunbat eta igandetan izaten zen zinea eta bi pelikula desberdin ikusteko aukera egoten zen. Zinearen justu aurretik bezperak izaten ziren. Getarian zine bakarra zegoen, baina Zarautzen hiru zeuden: Modelo, Antoniano eta beste bat. Zentsura handia zegoen eta apaizek gogor egiten zuten ezagunak izan arren. Sermoietan ere zinea kritikatu egiten zen; gaizki ikusia zegoen zinea elizan. Getarian izan diren apaizak.

Transkripzioa

- Eta esan dezu txikitan ta pelikulak, nausien pelikulak zianian eta, zuek pelikulak jaso bai, baiña gero ikusteik eta?
- A! Klaro! Pelikulak pixkat... leheno "tres mayores" esaten zien, o? Ta "tres erre" ta, bahituan. "Tres con reparos" izango huan, pentsatzen diat, "tres erre" zana. Ta orduan gu nola, zortzi anaietatik hiru txikiyenak geatu behar izaten giñin itxian ohian, ta bestiak, ba, etortzen hituan pelikula ikustea.
- Eta pelikulak izaten zian Españolak asko?
- Bai, porzentaje haundiyan Españolak bota behar izaten hituan.
- Legez.
- Bai, bai, lege, legia zitxion. Legia ipiñita eongo huan, ta "Fidez" o, ez zekiyat, organizaziyo bat bahuan, usten dit Tolosak, elizako zean sartuta eongo giñun itxuraz, beak erabakitzen zitun organizaziyo hortan. Ta hura enkargatzen huan astero-astero zapatuan ta jairako pelikula. Geo, norma bezela hartzen huan...e... Iten huan zapatuan, zapato gabian pelikula bat bota eta geo pelikula hura normalian botatzen huan hiru t'erditan jai arratsaldian, e, umientzako. Ta ondoren, bostak aldian o, beste pelikula bat botatzen huan haundiyeztako. Oseake, pertsona normalak zuxken astian bi aukera, osea, bi pelikula ikusteko aukera: bat zapato gabian, ta geo beste pelikula bat jai arratsaldian. Zeatik zapatuan botatzen zan pelikula hura, ez baldin bazan haundiyeztako, osea, "tres mayores" o "tres erre" o, zea hortakua, kalifikaziyo hortan ez baldin bazan sartzen, ez baldin

bazan sartzen, botatzen huan arratsaldian hiru t'arditan. Ta aurretik izaten zian bizperak, bizperak, eliza. Hori're goguan zakat, ba. Bizperak izaten zian. Haiek kantatzen zian, ta, juxtu-juxtu zineako, ba, denbora're tamaiñan izaten huan. Orduntxe handik erten, eta saltaka, honea allatzeko moua. Hori ezautu gendun, amona!

- Ta ordun hori izan da Getaian izan dan zine bakarra?

- Bai.

- Elcano.

- Hori ezautu diyat.

- (Amona): Zarautzen ez, e?, bakarra ta...

- Ez. Zarautzan bazian gehio. Zarautzan Modelo ta Antoniano ta, beste bat'e bazan. Beste... nola zuan bestiak izena? Beste bat'e bazan. Hiru zian Zarautzan.

- (Amona): Hiru, bai.

- Eta, zentsura ta asko izaten zan?

- Zentsura haundiya zitxion orduan, bai. Zine maillan zentsura haundiya. Geo, apaizak nahiko atakatzen zien.

- Bai?

- Bai, bai, bai. Hori gaiñea, kontxo!, nahiz apaizak geure lagunak eta izan, pixkat, e, hola, pelikula zea zanian ta, pixkat sartu iten hituan, e!

- Elizan'e bai, sermoietan eta? Edo...

- Bai. Nik goguan zakat hola, askotan ez, baiño... noixik eta behin, bai, sartu iten hituan. Orduan zinia begi txarrakin ikusita zitxion, zea, gauz zea bat bezela, "fuera del orden".

- Gaiñea, Getaia herri txikiya, ta...

- Karo. Orduan hik pentsatu behar dek Getaian nik hiru apaiz ezautu dixkiyat. Habek been garaian gazte denboan: zuk bost bat ezautuko ziñun? Zu etorri ziñan garaian, ta...

- (Amona): Nik lau.

- Oain bakarra zakau, oseake...

- (Amona): Bakarra, ta hua're...

- Bea're kanpotik. Zumaian bizi dek, baiño honea, baiño hontako, Getairako dao ipiñita.

3. Pelikularen deskantsuan jendea kantinara

- **Erref:** GET-013/004
- **Iraupena:** 0:02:04. **Hasi:** 00:07:32. **Bukatu:** 00:09:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Zinema

Laburpena:

Poltsa bakoitzean 10-12 rolo etortzen ziren eta haiek rolo handiago batean elkartu egin behar izaten ziren, elkarri lotu. Azetonarekin pegatzen zituzten zintak. Pelikularen erdian deskantsu handi bat egiten zen beti, baina pelikula luzea zenean beste deskantsu bat ere egin behar izaten zen, rolo guztia batera ez zen kabitzen makinan eta. Jendeak kanpora irten eta edariren bat hartzeko aprobeztatzen zuen. Kantina zegoen zinean bertan.

Transkripzioa

- Ziniak orduan etortzen hituan rolluak, bakik, zintak, zintak zeluloidekuak nola izaten zian? Etortzen hituan, ba, igual, e, poltsa batian hamar, hamar, hamar rolo eo, dozena bat o, "los que sean". Ta geo haiek in behar izaten

hituan alkar enpalmatu.

- A bai, e?

- Karo! Hik, hik rollua ipintzen huan, ta geo zinia botatzen hasteako in behar izaten huan rollo haundi batian ipiñi. In behar izaten hituan enpalmatu. Ta enpalmatzen hituan zea, e, foto zea hoietako bakoitzai pixkat arraskatu, azetona eman, ta azetonakin iten huan peatu. Ta geo, ba, iten huan zinia botatzeko mouan hiru bat, osea, bi deskantso inda, hiru bat alditan. Entenditzen al dek? Izaten huan deskantso haundi bat, ta geo, pelikula luzia baldin bazan, ba, nola ez zun rolluak ematen makinak rollo danak kabitzeko, ba, in behar izaten huan aurretikan'e beste deskantso txiki bat. Ta jendiak orduan aprobeztatzen zian zinian, ba, kanpoa erten ta, kontxo!, coca-cola o, fanta o, limonada o, zerbeza o, zeoze, holako erariya hartzeko.

- Eta taberna zeon bertan?

- (Amona): Bai.

- Ez. Zinian bertan kantina bat huan, kantina bat, eta bertan zerbitzen zixkien. Esito haundiya eukitzen zituen baita're abellanak, abellanak esito haundiya eukitzen ziyen.

- Orduan txikliak eta holako konturik ez zan izango.

- Bai, txiklia bahuan ordurako, e!

- Bai, e?

- Bai, bai, bai, bai. Orduan, ordurako txikliak eta bahituan.

- Karameluak, eta...

- Karameluak, abellanak, txikliak eta gero, ba, hoixe. Ta kopa're bai.

Kopa're zerbitzen zan. Kopa're bai. Koñaka zerbitzen, koñaka're zerbitzen huan.

4. Itsasgizonei erlaxatzen laguntzen zien zineak

- **Erref:** GET-013/005
- **Iraupena:** 0:01:54. **Hasi:** 00:09:36. **Bukatu:** 00:11:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Zinema
- Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Arrantza-orokorra

Laburpena:

Telebistarik ez zegoenez zineak giroa sortzen zuen. Udaberrian galiziar asko etortzen zen antxoatara. Aste guztia itsasoan egin ostean gizonetako guztiak zinera etortzen ziren asteburuan. Itsasoko gizonentzat "desahogo" moduan garrantzi handia izan zuela uste du.

5. Pelikulak botatzeko makina; zinean erretzea debekatuta

- **Erref:** GET-013/006
- **Iraupena:** 0:02:28. **Hasi:** 00:11:30. **Bukatu:** 00:13:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Zinema

Laburpena:

Pelikulak botatzeko makinak bi elektrodo eta ikatzarekin funtzionatzen zuen. Ikatzak elkarrengandik urruntzen zirenean argitasuna ilundu egiten zen eta

jendeak txistu jotzen zuen protestatzeko. Debebatuta zegoen zinean erretzea eta jendearekin borroka egin behar izaten zuten zigarro edo puruak itzal zitzaten.

Transkripzioa

- Ta makina're huan, ba, huan bi ikatzekin funtzionatzen zian, osea, bi elektrodo. Gaurko egunian ez zituan holako kamarik eta. Hituan bi elektrodo suakiñ. Nahiko ondo funtzionatzen zian. Atzetik pantalla bat eukitzen zian. Ta geo iten huan bere aurretikan zea pasa, zinta hoiek, zinta hoiek eta proiektatzen huan. Gaurko egunian'e pentsatzen diat tipo hortan izango dala zeak, ziniak, ez zekiat. Ta makina, ba, inportantia huan. Makina, noixian behin ikatzak eta pixkat distantziatzen baldin bazian iten huan argitasuna illundu ta, kontxo!, ikusi're gitxi iten huan. Ta jendiak, ba, orduan protestak iten zixkian...

- Txistuka ta...

- Txistuak ta pataleuak, pataleuak eman, ta... Zea hori bahuan.

- Dana eskuz izango zan, ez? Dana: makiña...

- Bai, bai, bai...

- [...], ta...

- Ez, e... Ikatzak eta automatikamente moitzen hituan, e! Ordurako nahiko makina politak hituan. Bueno, nik goguan dakatena behintzat! Baiño, beste gauza goguan asko dakauna garai hartako, garai hartako zinian prohibituta huan erretzia. Zenbat lutzatu deun guk, e!, jendiak ez zigarrua erretzeko ta ez puruik erretzeko. Zeatikan orduan zinia ikustea etortzen zianak etortzen hituan zapato illuntzian earki afaldu, txuleta jan, kopa hartu, purua pixtu, ta purua errez, ba, zinia ikustea. Purua botatzia ze kostatzen zan, jainko santisimok bakarrik zakik!

- Danak ezkututzen, ez?

- Baiño ordurako zinetan erretzia prohibituta zitxion, e!

- Peligrosua zalako?

- Ez zekiat. Ez, lokal itxiyak zialako, eo... Nik ez zekit ze motibogatik, baiño ordurako... Baiño beti gerra biziyen, zeatik orduan beti huan, batek sua pixtu zula, ta, kabreatzeatikan'e igual. Bakik jendia nola izaten dan askotan.

- Bai.

- Hori... danetik eoten dek! Batzuek errespetzen die, baiño bestiak, ba...

- Eta zapatu gabian, ba, gutxiyo. Bai, bai. Isteria polita.

- Gure gazte denboatako, nik, hori dek dakaten zea.

6. 10 urte inguruan izan zuten zinearen ardura

- **Erref:** GET-013/007
- **Iraupena:** 0:03:34. **Hasi:** 00:13:58. **Bukatu:** 00:17:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Zinema

Laburpena:

1968 inguruan itxi zuten zinea. Jendea gutxitu egin zen eta Zarautzera joaten ziren gehienak eta horregatik itxi zuten. Asteaz zehar itsasoan lan egin eta asteburuan zinean. 10 urte inguruan izan zuten zinearen ardura. Arrebak egiten zuen lan gehien zinean. Zertan laguntzen zioten arrebari zinean: akomodadore, takilan, kantuan... Bakeroen pelikulek izaten zuten arrakasta gehien.

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com